**Iruran hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat lokalaren alokairurako dirulaguntzaren Udal Ordenantza.**

Irurako Udalak, hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarri hauek onartu ditu.

*1. artikulua. Xedea.*

Ebazpen honen xedea da Irurako Udalaren dirulaguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, jarduera ekonomiko berri bat abian jarri nahi duten ekintzaileei laguntzeko.

Iruran hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzaileari lokalaren alokairuan laguntzera bideratuko dira dirulaguntza hauek.

*2. artikulua. Onuradunak.*

Iruran hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonor, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda, Irura edo beste udalerri bat. Dirulaguntza alokairuaren ordainketan laguntzeko izango da.

Lehentasuna izango dute:

— Herri gunean nahiz auzoetan gaur egun herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotura duten proiektuek.

— Ixtera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipenekoak diren proiektuek.

*3.artikulua. Baldintzak.*

a) Jarduera motari dagokionean:
— Txikizkako herri merkataritzako jarduerak izatea, azken bezeroarekin edo herritarrarekin harreman zuzena dutenak.
— Pertsonei zuzendutako zerbitzuak.
— Jarduera komertziala izanik, Udalerri honen biziberritze ekonomiko eta sozialerako lagungarria izango dela kontsideratzen den

**Ordenanza municipal para el otorgamiento de subvenciones a la persona emprendedora que quiera poner en marcha una nueva actividad económica para el alquiler de un local comercial vacío situado en Irura.**

El Ayuntamiento de Irura ha aprobado estas bases reguladoras para la concesión de una subvención a la persona emprendedora que quiera poner en marcha una nueva actividad económica en un local comercial situado en Irura.

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de esta resolución es establecer las bases reguladoras de las subvenciones del Ayuntamiento de Irura para ayudar a personas emprendedoras que quieran poner en marcha una nueva actividad económica.

El propósito de estas ayudas es subvencionar el pago del alquiler de un local comercial situado en Irura a una persona emprendedora que quiera poner en marcha una nueva actividad económica.

*Artículo 2. Personas beneficiarias.*

Cualquier persona, física o jurídica, que quiera poner en marcha una nueva actividad económica en un local comercial situado en Irura, con independencia de que su lugar de residencia sea Irura o cualquier otra localidad. La subvención será concedida para ayudar en el pago del alquiler de dicho local.

Tendrán prioridad:

— Los proyectos relacionados con servicios que actualmente no se ofrecen a los vecinos, tanto en el núcleo urbano como en los barrios.

— Los proyectos que supongan una continuación de actividades que vayan a cerrar o han sido recientemente cerradas.

*Artículo 3. Requisitos.*

a) Respecto al tipo de actividad:
— Que sean actividades comerciales al por menor que tengan una relación directa con el cliente último o con los vecinos del pueblo.
— Servicios dirigidos a personas.
— Cualquier otra actividad que, siendo de carácter comercial, sea considerada apropiada para la revitalización económica y social de este

bestelako edozein jarduera.

b) Ekintzaile eta enpresa proiektuaren ezaugarriak.

— Jarduera garatu ahal izateko lokalik jabetzan ez izatea.
— Jarduera garatzeko, hutsik dagoen Irurako merkataritza lokal bat alokairuan hartzea.
— Enpresaren langile kopurua gehienez ere 5 izatea.
— Gorago adierazitako baldintzetakoren bat betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetza zuzena nahiz zeharkakoa ez izatea bertan.
— Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea.
— Ekintzaile eta lokal jabearen artean alokairu kontratua sinatzea.
— Jardueraren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzen duen proiektua landua izatea, Tolosa Garatzen S.A.-ren dagokion zerbitzuaren jarraibideak jarraituz.
— Ekintzaileak lokal-jabearekin odolkidetasunagatik edo ezkontzagatik bigarren mailara arteko ahaidetasun harremana daukaten ezkontidearekin, ondorengoekin eta gainerako ahaideekin ahaidetasun harremanik ez izatea.
— Foru Ogasuneko zerga betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
— Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekin dituen betebeharretan egunean dagoela egiaztatzea.

c) Lokalaren alokairuaren ezaugarriak.
— Lokalaren alokairuaren prezioa gehienez ere 10 €/ m²ko izango da.
— Alokairuan hartzen den lokalaren kontratuak 12 hilabeteko iraupena izan beharko du gutxienez.

*4. artikulua. Diruz-lagungarria.*

Aurkeztutako proiektuko jarduera garatzeko Iruran hutsik dagoen merkataritza lokal baten alokairu gastua izango da diruz lagunduko dena.

*5. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta iraupena.*

Gehienez ere lehenengo bi urteren alokairu gastuak diruz lagunduko dira:

— Lehenengo urtean alokairu gastuaren % 40a, gehienez ere 300 € hilean.

— Bigarren urtean alokairu gastuaren % 30a,

municipio.

b) Respecto a las características de la persona emprendedora y del proyecto de empresa.
— No disponer en propiedad de ningún local donde poder desarrollar la actividad.
— Alquilar para el desarrollo la actividad un local comercial situado en Irura.
— Que sean como máximo 5 las personas empleadas en la empresa.
— Que las empresas que no cumplan alguno de los requisitos mencionados no tenga más de un 25 por ciento de participación directa o indirecta en la misma.
— Estar dada de alta en el impuesto de actividades económicas.
— Que se firme el contrato de alquiler entre la persona emprendedora y la propietaria del local.
— Que se haya elaborado un proyecto que certifique la viabilidad económica de la actividad, siguiendo las pautas establecidas por el servicio correspondiente de Tolosaldea Garatzen S.A..
— Que la persona emprendedora no tenga relación de hasta segundo grado de consanguinidad o afinidad con la propietaria, sus descendientes y demás parientes.
— Certificar que está al día en las obligaciones fiscales con la Hacienda Foral.
— Certificar que está al día en sus obligaciones con la Tesorería General de la Seguridad Social.

c) Respecto a las características del alquiler.
— Que el precio del alquiler sea como máximo de 10 €/m².
— El contrato del local que se alquila deberá tener una duración mínima de 12 meses.

*Artículo 4. Aspecto subvencionable.*

El aspecto subvencionable por esta ayuda económica será el gasto de alquiler de un local comercial vacío situado en Irura para el desarrollo del proyecto presentado.

*Artículo 5. Cuantía y duración de la subvención.*

Se subvencionarán como máximo los gastos de alquiler de los dos primeros años:

— El primer año, el 40 % del gasto de alquiler, 300 € al mes como máximo.

— El segundo año, el 30 % del gasto de alquiler,

gehienez ere 200 € hilean.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta argindarraren gastuak, eta abar). Udalaren deialdi bakoitzean onartutako dirulaguntza, gehienez ere 12 hilabeteko alokairu gastuei dagokiena izango da. Dirulaguntza jasotzen jarraitu ahal izateko, dagokion urteko deialdian dirulaguntzaren luzapena eskatu beharko da, deialdi ezberdinetan guztira lortutako dirulaguntza gehienez ere 24 hilabeteko alokairu gastuei dagokiena izanik

*6. artikulua. Aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak.*

Dirulaguntzak emateko oinarrizko irizpideak oinarri hauetan xedatutakoak dira.

Ezarritako baldintzak eta bete beharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion dirulaguntzak oinarri hauetan ezarritako baldintzetan emango dira.

Aurkezten diren ordenaren arabera diru laguntzak emango dira aurrekontu-partidan kontsignatutako kopurua iritsi arte.

*7. artikulua. Euskara eta Hizkuntza paisaia.*

Programa honen bitartez dirulaguntzak jaso ahal izateko, establezimenduaren kanpoko nahiz barruko, finko eta iraunkorrak diren, errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira.

*8. artikulua. Prozedura.*

— Instrukzioa eta proposamena:

1. Udaleko Kontu-hartzailetza Arloak egingo ditu oinarri hauetan aurreikusitako laguntzen espedienteak instruitzeko lanak. Zerbitzu tekniko eskudunek eskaerak aztertu eta ebaluatuko dituzte, eta ebazpen-proposamena egingo dute. Dirulaguntzei behin betiko onarpena emateko organo eskuduna Irurako Udaleko Alkatetza izango da.

2. Dirulaguntzen behin-behineko ebazpen

200 € al mes como máximo.

La base para el cálculo de la cuantía de la subvención la constituirán únicamente los gastos de alquiler (sin incluir el pago del IVA y demás impuestos y tasas, y tampoco la retención), y no se tendrán en cuenta otros gastos relacionados con el uso del local (gastos de comunidad, gastos agua y electricidad, etc.). La subvención aprobada en cada convocatoria del ayuntamiento corresponderá únicamente a los gastos de alquiler de 12 meses. Para poder continuar recibiendo la subvención, se deberá solicitar, en la convocatoria correspondiente, la prórroga de la subvención, y la subvención obtenida por medio de las distintas convocatorias será como máximo la correspondiente a los gastos de alquiler de 24 meses.

*Artículo 6. Criterios de selección.*

Los criterios básicos para la concesión de las ayudas son los establecidos en las presentes bases.

Comprobado el cumplimiento de las condiciones y requisitos, se concederán las ayudas, en las condiciones establecidas en las presentes bases.

Las ayudas se concederán en función del orden de presentación y hasta el límite de la consignación presupuestaria.

*Artículo 7. Euskera y paisaje lingüístico.*

Para poder recibir subvenciones a través de este programa, los rótulos, las notas, las señales, los carteles y demás comunicaciones generales exteriores e interiores fijas y permanentes se realizarán en euskera.

*Artículo 8. Procedimiento.*

— Instrucción y propuesta:

1. Corresponderá al Área de Intervención la realización de las labores de instrucción de los expedientes de ayudas previstas en las presentes bases. Las solicitudes serán estudiadas y evaluadas por los servicios técnicos competentes, quienes realizarán una propuesta de resolución. El órgano competente para la aprobación definitiva de la concesión de las subvenciones será la Alcaldía Ayuntamiento de Irura.

proposamena, Alkatearen Probidentzia moduan, interesatuei jakinaraziko zaie, Irurako Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.

3. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da: proposatutako dirulaguntza eta zenbatekoa proposatuz.

— Ebazpena:

1. Behin betiko proposamen ebazpena onetsi ondoren, Udaleko Alkatetzak amaiera emango dio prozedurari, arrazoitutako ebazpen baten bidez.

2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik, balego.

3. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabete izango da eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.

4. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztuko dira.

*9. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa modua.*

Dirulaguntza zatika ordainduko da, hiru hilabetetik behin, hileroko ordainketak agiri originalen bidez justifikatu ondoren, eta justifikatu egin beharko da hil horietan alokairua ordaindu izana:

— Lehenengo ordainketa, deialdia ebatzi ondoren egingo da. Eskaerak aurkezteko epea, amaitzen den egunetik hilabete eta erdi igaro aurretik ebatziko dira dirulaguntzak.

— Hurrengo ordainketei dagokienez, zatika egingo dira, hiru hilabetetik behin, hiruhilekoa amaitzean, eta justifikatu egin beharko da hil horietan alokairua ordaindu izana justifikatu ondoren. Irurako Udalaren bulegoetan entregatu beharko dira alokairua ordaindu izanaren agiriak, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehen 15 egunen barruan.

*10. artikulua. Onuradunen betebeharrak.*

2. La propuesta de resolución, en forma de Providencia del Alcalde, será notificada a las personas interesadas, a través del tablón de anuncios municipal y página web del Ayuntamiento de Irura, concediéndoles un plazo de diez días para la presentación de alegaciones.

3. Examinadas las alegaciones en su caso presentadas, se formulará propuesta de resolución definitiva que deberá expresar la concesión de la subvención y su cuantía.

— Resolución:

1. Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva, la Alcaldía finalizará el procedimiento mediante resolución motivada.

2. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso de la solicitud.

3. El plazo máximo para resolver y notificar será de dos meses desde el día de presentación de la solicitud. La falta de resolución en el plazo indicado supondrá la desestimación de la solicitud presentada.

4. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago.

*Artículo 9. Abono de las ayudas.*

El abono de la subvención se realizará de manera fraccionada, cada tres meses, debiendo justificarse los pagos de las mensualidades correspondientes:

— El primer pago se realizará tras la resolución de la convocatoria. La resolución de concesión de las subvenciones se acordará en un máximo de mes y medio tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

— En relación con los pagos siguientes, se realizarán de manera fraccionada, por trimestres vencidos, debiendo justificarse los pagos de las mensualidades correspondientes. La entrega de los justificantes de abono se realizará en las oficinas del Ayuntamiento de Irura en los 15 primeros días posteriores a cada trimestre natural.

*Artículo 10. Obligaciones de las personas*

*beneficiarias.*

a) Lokalari dagokionean.

— Jarduera jakin bat garatzeko diruz lagundua izan den lokala ezin izango da beste jarduera baterako erabili; aurkeztutako proiekturako erabiltzera behartua dago dirulaguntza jaso duen onuraduna.
— Era berean, indarrean den legediari jarraituz, jarduera martxan jartzeko eta aurrera eramateko beharrezkoak diren administrazio lizentziak eta baimenak izan beharko ditu.

a) Con respecto al local.

— El local subvencionado para el desarrollo una actividad concreta no podrá ser utilizado para desarrollar cualquier otra actividad; la persona beneficiaria de la subvención estará obligada a utilizarla para el proyecto presentado.
— Asimismo, de acuerdo con la legislación vigente, deberá contar con las licencias y permisos administrativos necesarios para poner en marcha y llevar a cabo la actividad.

b) Honako egiaztapen jarduketa hauek egitera behartua dago: Udalarenak, Interbentzio Orokorrari dagozkion kontrol finantzarioarena eta Kontu Publikoen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusiak, emandako dirulaguntzari dagokionez.

b) Estará obligada a realizar las siguientes actuaciones de verificación: las municipales, las de control financieros correspondientes a Intervención General y las previstas en las normas del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en lo relativo a la subvención concedida.

c) Udalaren deialdi honetarako aurkeztutako gastu bererako beste laguntzarik edo dirulaguntzarik jasoz gero, Udalari jakinarazi beharra dago.

c) Se deberá comunicar al Ayuntamiento la obtención de cualquier otra ayuda o subvención para el mismo gasto presentado en esta convocatoria.

d) Dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako alderdiren batean edozein aldaketa gertatu bada (objektiboa nahiz subjektiboa izan), Udalari aldaketa horren berri ematea.

d) Se deberá comunicar al Ayuntamiento la modificación de cualquier circunstancia (objetiva o subjetiva) que se hubiese tenido en cuenta para la concesión de la beca.

e) Laguntza-eskaera aztertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio edota dokumentazio osagarri guztia ematea Irurako Udalari.

e) Se deberá presentar el Ayuntamiento de Irura toda información o documentación complementaria que se estime necesaria para el análisis y la evaluación de la subvención.

*11. artikulua. Aurrekontuaren aplikazioa:*

*Artículo 11. Aplicación del presupuesto.*

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak Udalaren urteko aurrekontutik finantzatuko dira.

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria serán financiadas por medio del presupuesto municipal correspondiente al ejercicio económico.

*12. artikulua. Eskariak aurkezteko lekua eta aurkeztu beharreko agiriak.*

*Artículo 12. Lugar para la presentación de las solicitudes y documentos a presentar.*

Eskaerak Irurako Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira.

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General municipal de Irura.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Documentación a presentar:

Eskaera egiten denean:

Al realizar la solicitud:

- Dirulaguntzaren eskaera orria eta zinpeko aitorpena (1. Eranskina).
- Hoja de solicitud de la subvención y declaración jurada.

- Pertsona juridikoek: IFZren fotokopia, enpresa eraketa eskrituren fotokopia, ordezkatzeko ahalordeak, ordezkatze ahalordea duen pertsonaren NANa.
- Alokairuan hartzen den lokalaren kontratuaren kopia, gauzatua bada, bestela, jabearen alokatzeko konpromisoa adierazten den aurre-kontratua, ondorengo hauek zehaztuz: lokalaren kokapena, azalera eta alokairu prezioa.
- Enpresa proiektua eta Jardueraren bideragarritasun plana, honako hauek barne: jardueraren oinarrizko datuak azaltzen dituen txostena, sustatzaile edo sustatzaile taldearen ezaugarriak eta ekonomia eta merkataritza bideragarritasunaren azterlana (II eranskina).

- Las personas jurídicas: fotocopia del NIF, fotocopia de la escritura de constitución de la empresa, poderes delegados, DNI de la persona con el poder delegado.
- Copia del contrato del local que se alquila, si está formalizado; si no lo está, precontrato donde se recoja el compromiso de alquilar el local por parte de la persona propietaria, concretando los siguientes aspectos: ubicación del local, superficie y precio de alquiler.
- Proyecto de empresa y plan de viabilidad de la actividad, incluyendo un informe explicativo de los datos fundamentales relativos a la actividad, características de la persona o equipo de personas emprendedoras, y un estudio de viabilidad económica y comercial.

Irurako Udalak, administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataforma bidez (NISAE) edo bitarteko telematikoen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkar eragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

El Ayuntamiento de Irura consultará a través de plataformas de intermediación de datos (NISAE) o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Públicas competentes los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elabora dos por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

Horren ildotik, Irurako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu, dirulaguntza hau eskuratu ahal izateko, administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataforma bidez (NISAE) edo bitarteko telematikoen bidez:

- Eskatzailearen NAN edo agiri baliokidea.

En este sentido, el Ayuntamiento de Irura va a verificar los siguientes requisitos, para poder acceder a dicha subvención, a través de plataformas de intermediación de datos (NISAE) o por medios telemáticos a las diferentes Administraciones Publicas competentes:

- DNI o documento equivalente de la persona

- Zerga betebeharrak egunean dituela.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Irurako Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordaintzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango.

Udalak berak egiaztatuko du Udal Erroldaren bidez eskatzailea irurarra den ala ez.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu, eskaria baliogabetua geratuko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Eskaera onartu ondoren, Udalak beharrezkoak dituen agiri edo argibide guztiak eskatu ahal izango ditu.

Jarduera baterako dirulaguntza eskaera aurkezte hutsak dirulaguntza arautzen duten oinarri hauen edukia ezagutzea eta onartzea dakar.

*13. artikulua. Epea.*

Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.

solicitante.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

La persona solicitante en el momento de presentar la solicitud no deberá tener deudas con el Ayuntamiento de Irura, a pesar de que no deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención.

El requisito de ser vecino o vecina de Irura lo acreditará el propio Ayuntamiento mediante el Padrón Municipal.

Cuando se comprobara que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes Bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la solicitud sin más trámites, de acuerdo con la normativa vigente.

Una vez admitida la solicitud el Ayuntamiento podrá solicitar cuantos documentos o aclaraciones considere convenientes.

La mera presentación de solicitud de subvención para una actividad implica el conocimiento y aceptación del contenido de las presentes bases que regulan su concesión.

*Artículo 13. Plazo.*

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*14. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateraezintasuna.*

Programa honetan aurreikusten diren laguntzak ezingo zaizkio gehitu gastu beretarako.

*Artículo 14. Incompatibilidad con otras subvenciones.*

Las ayudas previstas en este programa no podrán agregarse a otras ayudas destinadas al mismo gasto.

*15. artikulua. Dirulaguntzaren kontrola.*

Irurako Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal Zerbitzuak etxebizitzara joan ahal izango dira ikuskatzera, edota udalaren datu baseak kontsultatu dirulaguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Irurako Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, dirulaguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

Onuradunak uko egiten badio dirulaguntzaren kontrola errazteari, dirulaguntza hori ezeztatu egingo da, interesatuari aldez aurretik entzun ondoren, eta itzuli egin beharko du behar ez bezala ingresatutakoa.

*Artículo 15. Control de la subvención.*

El Ayuntamiento de Irura podrá requerir a los beneficiarios la presentación de cuantos documentos se consideren oportunos.

Los Servicios Municipales podrán acudir al domicilio e inspeccionar, así como consultar las bases de datos municipales con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las bases.

Las personas beneficiarias de las ayudas facilitarán cuanta información les sea requerida por el Ayuntamiento de Irura en el ejercicio de sus funciones de fiscalización.

La negativa a facilitar el control de la subvención por parte del beneficiario supondrá la resolución de la misma, previa audiencia del interesado, con devolución de lo ingresado indebidamente.

*16. artikulua. Araudi osagarria.*

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Irurako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetarako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

*Artículo 16. Normativa complementaria.*

Por lo que respecta a todo lo no recogido en esta convocatoria, se estará a lo establecido en la ordenanza reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Irura y en las disposiciones de la Ley 38/2003, reguladora de las subvenciones otorgadas por las Administraciones Públicas.

*17. artikulua. Argitara ematea.*

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, 18. artikuluan, 887/ 2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 30. artikuluan eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 8. artikuluan, ezartzen dutena kontuan izanda, oinarri hauei jarraiki ematen diren laguntzak Udaleko iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira, eta halaber gardentasuna eta informazio publikoaren eskuragarritasuna garantizatzeko ezarritako tresnetan. Beti errespetatuko da datu pertsonalak babesteko legeak xedatutakoa.

*Artículo 17. Publicidad.*

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, el artículo 30 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, y el art. 8 de la Ley 19/2013 de 9 de diciembre, las ayudas concedidas conforme a las presentes bases se publicarán en el tablón municipal de anuncios y en la página web del Ayuntamiento, así como en los instrumentos establecidos al efecto para garantizar la transparencia y el acceso a la información pública. En todo caso, se respetará lo dispuesto en la legislación de protección de datos de carácter personal.

*18. artikulua. Oinarrien Interpretazioa.*

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor

*Artículo 18. Interpretación de las Bases.*

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la

daitekeen edozein zalantzari buruz erabakitzea, dirulaguntza emateko ardura duen Organo berari dagokio.

*19. artikulua. Errekurtsoak.*

Dirulaguntzak emateko behin betiko ebazpenaren kontra berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman zuen Organo beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik kontatuta.

interpretación de estas bases, será resuelta por el órgano encargado de concederla subvención.

*Artículo 19. Recursos.*

La resolución definitiva de la concesión de las subvenciones podrá ser objeto de recurso de reposición ante el órgano que dictó la misma en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.